



## **OIARTZUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN III. ALDAKETARAKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA**

Autonomia-erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua arabera, egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Bestalde, *lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikulua* aipatu programa oso-osorik argitaratuko da dagokion lurralde historikoko aldirian, informazio-teknologia berrien bitartez hedatuko da, eta, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu, gutxienez: parte-hartzeko gida bat, jendaurreko bilkurak eta dibulgazio materiala.

Ondorioz, honen bitartez, Oiartzungo HAPOaren 3. aldatetaren tramitazioan erabiliko den honako Herritarren Partehartze Programa onartzen da.

2 fase izango ditu:

1. Fasea.- Hasierako onarpenaren aurretik:

Batetik, jendaurreko bilkura egingo da, non udal teknikariek ekimenaren edukia, alternatiba eta helburuak azalduko dituzten. Bilera horretan jasotzen diren iradokizun eta ekarpenekin akta idatziko da. Izandako ekarpenen inguruan udal teknikariek txostena idatziko dute eta bertan izan litezkeen aukeren artean hautaketa egiteko erabilitako arrazoian justifikatuko dira, eta ekarpenen bat onartuko ez balitz horren justifikazioa ere.

Bestetik, partehartzaileen artean, modu irekian, legediak eskatutako dokumentazioa guztien eskuragarri jarriko da, eta dokumentuak hedatzen eta ulertzen lagunduko da.

Horrekin batera, aipatu 2/2006 Legeak 109 artikuluan xedatzen duen Plangintzako Aholku Kontseiluaren bilkura burutuko da, espedientearen nondik norakoak adierazteko eta ekarpenak jasotzeko.

2. Fasea.- Hasierako onarpenaren ondoren:

Hasierako onarpenaren ondoren, plangintza dokumentua egiteko dokumentazioa jendaurrean jarriko da, interesatuak eta edozein herritar zein elkarteak alegazioa aurkeztu ahal izateko.

Bukaeran alegazioen inguruko txostena idatziko da, egindako eskaerak edo ekarpenak onartzeko edo baztertzeko arrazoiak justifikatuko dituen.

Dokumentuaren behin behingo onarpenaren aurretik, Plangintzako Aholku Kontseilua bilduko da Planaren onarpenaren inguruko iritzia plazaratzeko, espediente osoa eta gainerako txostenak eskuragarri izan ondoren.

Prozesu guztian, dibulgazio lanak zabaltzeko web orria eta herri mailako gainerako sareak erabiliko dira.